

GERNIKA-LUMO / Liburutegia Pasealekuan egiteko proiektua martxan da

Maite Orue

Pasealekuko eskolak liburutegi bihurtzeko prozesua martxan jarri du Udalak, Jose Mari Gorroño alkateak jakitera eman duenez. Proiektua egiteko eskaera egin dio dagoeneko arkitekto bati eta, hortaz, baliteke udal ordezkariak urriaren amaierarako esku artean izatea. Ostean, lehiaketa publikora atera beharko dute obra, baina, esleipen prozesua ondo joanez gero, asmoa liburutegia 2008. urtearen amaierarako Pasealekuan izatea da. Gaur egungo liburutegiaren egoera txarra dela-eta hartu dute udal ordezkariak liburutegiaren kokapena lekualdatzearen erabakia. Izan ere, gaur egungoak itoginak ditu eta oso txikia da, Gorroñoren esanetan. Gauzak horrela, nahiago izan dute aurreko gobernuak aurreikusitako proiektuetako batzuk alde batera utzi liburutegi dezente bat egitearenari lehentasuna emateko.

Andra Mari elizaren ondoan dagoen eraikinean egin gura dute liburutegia, eskoletako eskuineko aldean. Gaur egun oraindik Allende Salazar ikastetxeak erabiltzen du eraikin hori, Udalak Hezkuntza sailari utzi baitzion bere garaian. Hala ere, datorren urterako Allenden bertan izango dira gaur egun Pasealekuan dauden ikasleak, denak hartzeko beste toki badago bertan eta.

Taldeentzako lokalak

569,8 metro koadroko azalera izango du Pasealekuko liburutegi berriak eta bertan, bibliotekaz gain, ikasketarako gelak ere egingo dituzte, herrian aspaldidanik dagoen eskaera asetu asmoz.

Bestalde, ezkerreko eraikinean herriko talde kulturalentzako lokalak egokituko ditu Udalak. Beste eraikinaren azalera bera dauka azken horrek ere 569,8 metro koadro, baina proiektua egin arte ez dute zehatz mehatz jakingo zenbatentzako tokia izango den.

Hala ere, gutxi gorabehera zortzi bat izan daitezkeela esan du Jose Mari Gorroñok. Denak sartzeko aukerarik egongo den ez dakigu, baina batzuentzako tokia behintzat egongo da. Liburutegi berriaren eta talde kulturalentzako lokalei esker, herri erdian gune kultural bat sortzea du Udalak helburu.

Liburutegia Pasealekura eramatean, gaur egungoak kultur etxeko eraikinean betetzen duen espazioa ziur aski Berritzeguneak erabiliko duela esan du alkateak.